

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Uztailak 30  
Asteazkena  
Alea: 836  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## ■ ERREMONTA

# Casino Kursaal buruz buruko txapelketa bihar hasiko da Galarretan, 'Koteto' Ezkurra faborito dela

■ Partiduak ostegun eta larunbatetan jokatuko dira Galarretan ■ Ligila bidez erabakiko da zeinek jokatuko duten finala ■ Partiduak 30era jokatuko dira, eta finala 35era ■ Bikotekako gazteen Casino Kursaal txapelketa ere hasteko da abuztuaren 4an ■ Bi finalak irailaren 6an dira.



Goian ezkerretik: Zeberio II, Lizaso, Altuna II, Etxabe eta Iriarte. Behean: Aizpuru, Bitoria, Ezkurra, Eizagirre eta Altuna I.

BURUZ buruko Casino Kursaal txapelketa bihar hasiko da Galarretan, Altuna II eta Iriarteren arteko partiduarekin. Azken urteetan Bingo Londres bezala ezagutu den txapelketak patrozinatzalea aldatu du eta Casino Kursaal izena hartu. 10 pelotari izango dira aurtengo buruz buruko eta faboritoa, Koteto Ezkurra doneztebearra, aurrekoetan bezala. Zazpi bider buruz buruko txapeldun izan den

Ezkurrak esan duenez, etsairik gogorrenak Zeberio II, Lizaso eta Eizagirre izango ditu.

### Ligila finalerdietan

Aurtengo aldaketarik haundi- ena finalerdietan etorriko da. Aurreko urteetan txapeldunak finalean itxaroten zien bere aurkariei baina, aurten, final laurdenetan sartuko da Ezku- rra. Bestalde, finalerdietan 3 pelotari izango dira eta elkarren kontra jokatuko dute par-

tidu bana. Ligila horretan puntu gehien atera dituzten biak finalean izango dira.

### Partiduak ostegun eta

**larunbatetan, eta 30 tantora** Txapelketako partidu guztiak ostegun eta larunbatetan izango dira Galarretan, bihar hasita. Bestalde, txapelketa honen badu beste aldaketa bat. Finalera bitarteko partiduak 30era izango dira, eta finala 35era. Txapelketako ardu-

radunen esanetan ikuskizunak irabaziko du partidu motzagoak egin ezkerro.

### Gazteen txapelketa bikoteka

Aurten, gainera, bikotekako promesen txapelketa ere izango da Galarretan. Zortzi bikote izango dira lehian; denak aurten debutatuak edo debutatu gabeak. Partiduak astelehenean eta asteazkenetan izango dira, abuztuaren 4an hasita. Finala, irailaren 6an. □

## PARTE HARTZAILEAK

### Koteto Ezkurra

Doneztebe, 29 urte  
Buruz buru 7 aldiz txapeldun  
Bikoteka 2 aldiz txapeldun

### Jokin Etxabe

Azkoitia (Hernanin bizi), 30 urte  
Bikoteka 2 aldiz txapeldun

### Pello Aizpuru

Urrestilla, 39 urte  
Buruz buru behin txapeldun  
Bikoteka 3 aldiz txapeldun

### Iñaki Martínez Lizaso - Lizaso -

Doneztebe, 30 urte  
Buruz buru behin txapeldun

### Jon Eizagirre

Zarautz, 37 urte  
Bikoteka 4 aldiz txapeldun

### Imanol Altuna - Altuna I -

Amezketa, 35 urte  
Bikoteka aurtengo txapeldun

### Patxi Zeberio - Zeberio II -

Elduain, 29 urte  
Bikoteka 2 aldiz txapeldun

### Xabier Bitoria

Andoain, 31 urte

### Garikoitz Altuna - Altuna II -

Amezketa, 27 urte  
Bikoteka 2 aldiz txapeldun

### Txetxu Iriarte

Azpeitia, 32 urte  
Bikoteka behin txapeldun

## Casino Kursaal Gazteen Bikotekako txapelketa

Matxin IV - Aizpurua

Uterga - Lander

Iturrealde - Ion

Matxin III - Agirrezabala

Larrea - Urrutia

Matxin V - Badiola

Juaristi - Gaztelu

Zalakain - Olazar

Partiduak astelehen eta asteazkenetan  
Finala: irailaren 6an

www.kronika.net  
**kronika**  
Internetean helbide berrian

Telf.: 943 551494 / 943 551912  
Fax: 943 551130

Kardaberaz 68  
Hernani 20120

**Allianz**   
ASEGURUA  
Agustin Ezporda  
AGENTZIA  
Telf.: 943 557 326  
656 735 109

**GESTORIA  
ZULAIKA  
ASSESSORIA**  
Santa Barbara 2  
Tel. 943 331 387 - HERNANI

**PUTZUETA**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
  
**SANTA  
BARBARA  
JATETXEA**  
Kardaberaz 39  
Tel.: 943 55 27 87  
20120 Hernani

**OINDI**  
  
**taberna**  
**NAGUSIA, 25**  
**HERNANI**  
**943 557 509**



Liburutegian interneta duten sei ordenadore daude orain.

## Abuztuan ordutegi bereziak izango dira liburutegian eta kiroldegian

■ Liburutegia astean zehar goizeko 09:00etik 14:00ak arte dago irekita eta kiroldegia 07:00etik 14:00ak arte ■ Abuztuan Informatika Aretoa itxita egongo da.

UDARA dela eta udal-zerbitzuek ordutegi eta zerbitzu bereziak izango dituzte. Liburutegia goizeko 09:00etik 14:00ak arte egongo da irekita eta aste bukaerratan itxita egongo da. Kiroldegia astelehenetik ostiralera irekiko ditu apeak, goizeko 07:00etik 14:00ak arte. Bestalde, abuztuan Informatika Aretoa itxita egongo da.

### Kiroldegia

Kiroldegia abuztuan ez ditu hainbat zerbitzu eskainiko. Erabili ahal izango diren zerbitzuak: igerilekua, sauna, bi-kiril pistak, gimnasioa, tenis pista eta frontoia izango dira. Kirol medikuntza zentroa itxita egongo da, eta aerobic ikastarorik ez dagoenez, aerobic

gela ere itxita egongo da.

Dagoeneko berandu da abuztuan martxan jarriko diren bi igeriketa ikastaroetan izena emateko. Hala ere abuztuaren 20tik aurrera irekiko da irailetik aurrera hasiko diren ikastaro guztietan izena emateko epea: aerobica, igeriketa, gimnasia eta karatea dira irailetik aurrera hasiko diren ikastaroak. Ikastaro hauetan lehenago parte hartu dutenek dagoeneko aukera dute izena emateko.

### Liburutegia

Astelehenetik ostiralera goizeko 09:00etik 14:00ak arte irekiko ditu apeak liburutegiak. Bertan eskura daude, aldizkariak, liburuak, diskoak, bideoak eta interneta duten

ordenadoreak.

Duela hiru astetik 4 ordenadore gehiago daude liburutegian. Beraz orain sei ordenadore daude interneta erabili nahi dutenentzat. Aldez aurretik ordua eskatu beharra dago interneta duten ordenadoreetatik bi erabiltzeko, besteetan joan orduko erabili daitezke kontsulta txikiak egiteko.

### Informatika Aretoa

Informatika Aretoa Larramendi kalean zegoen, baina, orain Biteri Kultur Etxean dago eta liburutegiaren barruko zerbitzu bihurtu da. Liburutegian dauden ordenagailu-ekin abuztuko jendearen eskarria aseko dutela pentsatzen dute eta informatika aretoa itxi egingo dute abuztuan. □



Etxolaberriko meategietako auzolantegietakoei harrera Udaletxeen. Etxolaberriko meategietako inguruak garbitu eta plano arkeologikoak ateratzeko bi auzolantegi antolatu dituzte auren. Lehenengo txanda bukatu berri da eta joan den astelehenean etorri ziren bigarren txandan lan egingo duten gazteak. 21 lagun dira guztira eta Polonia, Frantzia, Italia, Japon, Alemania eta hemen bertako jendea dago, besteak beste. Auzolantegi hauek Udaletxeak eta Eusko Jaurlaritzak antolatu dituzte. □

## Emakume bat zauritu zen astelehenean

### Ereñotzun izandako kotxe istripuan

■ Istripua dela-eta, bidea bi orduz itxita egon zen.

31 URTEKO emakume bat zauritu zen astelehenean Ereñotzu inguruan (Gi-3410 erre-pidean), izandako kotxe istripuan. Herrizaingo Sailak jakin arazi duenez, emakumea (E.D.P. izena duena) Peugeot 406 batean zioan eta bere bidetik atera eta kamioi bat eta

furgoneta bat jo zituen. Emakumea Donostiako Nuestra Señora de Arantzazu Ospitalean ingresatu zuten.

Istripua eguerdiko 13:00ak inguruan izan zen eta horren ondorioz Ereñotzurako bidea mozta egon zen 15:00ak ingurura bitarte. □

## Ertzaintzak 18 urteko gaztea atxilotu du lapurtutako motorrean zijoala

■ Gaztea kontrako direkzioan zijoalako gelditu zuten.

ERTZAINTZAK 18 urteko gazte bat atxilotu zuen igan-dean Hernanin. Herrizaingo Sailak jakin arazi duenez, kontrako direkzioan zioan 18 urteko gaztea (JA.G.A. izeneko) eta gelditu eta komisaria eraman zuten. Komisarian

konprobatu zuten motorra martxoan lapurtutakoa zela, eta horregatik gidaria atxilotu egin zuten. Motorra Irulen lapurtutakoa zen.

Atxilotutako gaztea aste-chen goizean pasa zen juezaren aurretik. □



'Hernani' taberna lehen 'Aukera' zegoen tokian.

## 'Hernani' taberna irekita dago joan den hilabetea ezkerro

■ Gosariak, pintxoak, plater konbinatuak, bokatak, hamburgesak, sandwichak etabar ematen dituzte.

HERNANI taberna joan den hilabetean ireki zuten. Lehen Aukera zegoen tokian dago taberna berria. Tabernak es-kaintza zabala dauka aukeran, goizean hasi eta gauera bi-tarte. Goizean gosariak eman-go dituzte. Eguerdian eta arratsaldean pintxoak jateko aukera izango da, eta bazkari edo afari mokoa egin nahi dutenek izango dituzte

bokatak, hamburgesak, san-dwichak eta plater konbinatuak.

### Ligako partiduak astero

Hernani tabernak beste bi es-kaintza ere baditu, David Hermoso nagusiak esan digunez: Tilosetako plazan mahaiak jarrita dauzka eta, astero-astro futbol ligako partiduak botatzeko asmoa daukate. □

### IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lancerako. Kondizio onak. Interesatuek deitu: 660 982 145 edo 678 058 003.

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- Gauze: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738